



# Zinexit

Giza Eskubideen 14. Zinema Erakustaldia  
14ª Muestra de Cine y Derechos Humanos

## 2024

### Giza Eskubideen 14. Zine Erakustaldia

14ª Muestra de Cine  
y Derechos Humanos

**BILBAO**

Azaroak 25 - 29 Noviembre

[www.zinexit.net](http://www.zinexit.net)



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA  
ESKUBIDEEN SALA  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y  
DERECHOS HUMANOS



# Zinexit



## Giza Eskubideen 14. Zine Erakustaldia

14ª Muestra de Cine  
y Derechos Humanos

Urriaren 8an, Zinexit Topaketaren baitan Tonio Hecker zuzendariaren "El caso Freyter" dokumentalaz gozatu ahal izan genuen. Jorge Adolfo Freyter Romero unibertsitateko irakaslearen bahiketa, tortura eta hilketari buruzko kontakizun bortitza, Kolonbiara itzulitako haren seme Jorge Freyterren eskutik.

Zinexiten 14. edizio honetan zenbait gai landu nahi dira, hala nola bidegabekeria eta diskriminazioa, erresilientzia eta ahalduntzea. Proiekzio bakoitza askotan gordean uzten diren errealitateetan sakontzeko aukera izango da, eta isilduak egon direnen ahotsak zabaltzeko aukera. Giza eskubideen aldeko borroka ahalegin kolektiboa eta etengabekoa da, eta ausardia, konpromisoa eta jarraitutasuna eskatzen ditu. Ekintza bakoitzak du garrantzia, eta ahots bakoitzak axola du. Borroka horretan bat eginda, denentzako mundu bidezkoago eta parekideago baten alde egiten dugu.

Gai hauen inguruan gogoeta egiteko, 5 film hautatu ditugu: Valentina Cicogna eta Mattia Colomboren "Pure unknown", Elena Molinaren "Remember my name"; Luis Soto Muñozen "Sueños y pan"; Shiori Itoren "Black box diaries"; Robert Mulliganen "Matar a un ruseñor".

Era berean, orain arte bezala, "Bosa!" programarekiko lankidetzat mantenduko dugu. Bilboko Udalaren laguntzaz, Zinexit Eskola egingo dugu Mohammed Kheyrandishen "Izurde Mutikoa" filmarekin. 6 eta 10 urte arteko 1.000 ikasle baino gehiago gerturatuko ditu zinemetara.

Azaroaren 25 eta 29 artean Azkuna Zentroko Golem zineman parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, eta inguratzen eta kezkatzen gaituzten gaien inguruan gogoeta egitera, zinema erabilia hausnarketa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko bitarteko gisa.

*El pasado 8 de octubre, en el marco de Zinexit Topaketa, pudimos disfrutar del documental "El caso Freyter" del director Tonio Hecker. Una impactante historia sobre el secuestro, tortura y asesinato del profesor universitario Jorge Adolfo Freyter Romero a través del regreso a Colombia de su hijo Jorge Freyter.*

*La idea motora para esta 14ª edición del Zinexit es abordar diversas temáticas, desde la injusticia y la discriminación hasta la resiliencia y el empoderamiento. Cada proyección será una oportunidad para profundizar en realidades que a menudo permanecen ocultas y para amplificar las voces de quienes han sido silenciados. Luchar por los derechos humanos es un esfuerzo colectivo y continuo que requiere valentía, compromiso y perseverancia. Cada acción cuenta, y cada voz importa. Al unírnos en esta lucha, contribuimos a la construcción de un mundo más justo y equitativo para todos.*

*Para reflexionar sobre estas cuestiones, hemos seleccionado 5 películas: "Pure unknown" de Valentina Cicogna y Mattia Colombo, "Remember my name" de Elena Molina; "Sueños y pan" de Luis Soto Muñoz; "Black box diaries" de Shiori Ito; "Matar a un ruseñor" de Robert Mulligan.*

*Del mismo modo, como hasta ahora, mantendremos la colaboración con el programa "Bosa!" Del Ayuntamiento de Bilbao y celebraremos el Zinexit Eskola, con la película "Izurde mutikoa" de Mohammed Kheyrandish, que atraerá a los cines más de 1.000 alumnos y alumnas de entre 6 y 10 años de edad.*

*Os animamos a participar los días 25 a 29 de noviembre en los cines Golem del Azkuna Zentroa y a reflexionar y debatir sobre temáticas que nos rodean y nos preocupan, utilizando el cine como medio para fomentar la reflexión y el pensamiento crítico.*

## **Jagoba Álvarez Ereño**

Giza Eskubide, Biktimia eta Aniztasun Zuzendaria  
Director de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad

# Zinexit

## Programazioa / Programación

---

### BILBAO. GOLEM AZKUNA ZENTROA. Azaroa Noviembre

FILMA / PELÍCULA	EGUNA / DÍA	ORDUA / HORA	ARETOA / SALA
Sueños y pan	Astelehena 25 Lunes	19:30	4
Remember my name	Astearte 26 Martes	19:30	4
Pure unknown	Asteazkena 27 Miércoles	19:30	4
Black box diaries	Osteguna 28 Jueves	19:30	4
Matar a un ruiseñor	Ostirala 29 Viernes	19:30	4

### SARRERAK

---

Programa honetako edozein film ikusteko, eskatu doako sarrera lehiatilan.

AZAROAREN 23tik AURRERA

Sarrera librea da, aretoko edukiera bete arte.

### ENTRADAS

---

*Para acceder a cualquier película de este programa es necesario pedir la entrada gratuita en la taquilla.*

*A PARTIR DEL 23 DE NOVIEMBRE.*

*La entrada es libre hasta completar aforo.*

Astelehena 25 Lunes

# Sueños y pan

España. 2023. 93 min.

**Zuzendaria/Director:** Luis (Soto) Muñoz

**Gidoia/Guion:** Luis (Soto) Muñoz

**Produktzioa/Producción:** Hugo Brito, Noelia Chañe, Sara Barreno

**Muntaia/Montaje:** Luis (Soto) Muñoz

**Argazkia/Fotografía:** Joaquín García-Riestra

**Aktoreak/Reparto:** George Steane, Javier de Luis, Cristina Masoni, John Lewin, Mario Saura

**Estreinaldia / Estreno**

LUIS (SOTO) MUÑOZ: “*Sueños y Pan* eskolako film gisa sortu zen; ez zine-eskolaren baten baitan kokatzen delako, baizik eta erabaki genuelako film honek erakutsiko zigula filmak egiten. Iragaita-istorioa da, inora ez doana, beharbada, eta zeharka, egin genuenen bidaia irudikatzen du, 19 urterekin idatzi baikenuen, eta 23rekin bukatu.

Bi filmekiko obsesiotik abiatuta sortu zen filma: *Los Olvidados* (Luis Buñuel, 1950) eta *Los Golfos* (Carlos Saura, 1960), guretzat egituraketa-diseinu antzekoa dute, agertokiaren lanketa antzekoa, gai antzekoak, baina bereziki espiritu bera: norabiderik ez duten gazteen noraezarena.

Zentzu bereko film bat egin nahi izan genuen; hiriariene baxterrean gertatzen zen filma, kanpoalde lasaia eta hirigune frenetikoaren atarian. Bazter horretan dabilzan pertsonaiak, egoera fisiko zein mental liminalean, joan denaren eta etortzeaz dagoenaren artean.”



LUIS (SOTO) MUÑOZ: “*Sueños y Pan* nace como película de escuela, no porque se enmarque en el seno de alguna escuela de cine sino porque fue esta la película que decidimos que nos enseñaría a hacer películas. Es una historia de tránsito, quizás a ninguna parte, que representa colateralmente el viaje de quienes la hicimos, la escribimos con 19 y la terminamos con 23.

*Nace de la obsesión por dos filmes: “Los Olvidados” (Luis Buñuel, 1950) y “Los Golfos” (Carlos Saura, 1960), para nosotros comparten similar diseño estructural, similar abordaje del escenario, similares temáticas, pero sobre todo un mismo espíritu, el de la deriva de los jóvenes sin rumbo.*

*Quisimos hacer una película en este mismo sentido, una película que aconteciese en los márgenes de la ciudad, en el umbral entre la reposada periferia y la frenética urbe. Unos personajes que paseen por este borde, en un estado liminal tanto físico como mental, entre una cosa que se ha ido y otra que está por llegar.”*

## Solasaldia

**Luis (Soto) Muñoz.** Zuzendaria.

**Braulio Gómez Fortes.** Zientzia Politikoan eta Soziologian doktorea Complutense Unibertsitatean.

## Coloquio

**Luis (Soto) Muñoz.** Director.

**Braulio Gómez Fortes.** Doctor en Ciencia Política y Sociología por la Universidad Complutense.



Asteartea 26 Martes

# Remember my name

Frantzia, Espainia. 2023. 73 min.

**Zuzendaria/Directora:** Elena Molina

**Gidoia/Guion:** Elena Molina

**Muntaia/Montaje:** Begoña Ruiz

**Argazkia/Fotografía:** Juan Meseguer

**Soinua/Sonido:** Begoña Ruiz

**Produkzioa/Producción:** Boogaloo Films

## Estreinaldia / Estreno

Marokotik Melillako hesia gurutzatu ostean, laguntzailerik gabeko adingabeentzako mojen Divina Infantita harrera-zentroan sartu da Ihsen. Bitartean, Hamzak 18 urte bete, eta La Purísima, mutilentzako harrera-zentroa, utzi behar du. Bakarrik ailegatu ziren denak Melillara, baina familia berria aurkitu dute: Nana dantza-konpainia. Lan gogorraren ondoren, *Got Talent* telebista-saioan lehiatzeko hautatu dituzte, baina argiak italtzean desagertzen den lilura bizi dute han.

*Remember My Name* ez da laguntzailerik gabeko adingabeei buruzko filma, kolektibo horren atzean dauden pertsonen buruzkoa baizik.

Dokumentalak zenbait aukera eskaintzen ditu, gertuko begiradaz eta pertsonaiengana eta haien bizitzetara gizatasunez gerturatuz; eta Elena Molinak horiei presentzia ematea (ez ahotsa, ahotsa bai baitute jada) lortzen du: zein diren, haietako bakoitzak izena duela eta partekatzen duten sailkapenez harago norbait badirela erakutsiz.

*Tras cruzar la valla de Melilla desde Marruecos, Ihsen ingresa en el centro de acogida de monjas Divina Infantita para menores no acompañadas. Mientras, Hamza cumple 18 años y tiene que abandonar La Purísima, el centro de acogida para chicos. Todos llegaron solos a Melilla pero han encontrado una nueva familia: la compañía de danza Nana. Tras un duro trabajo, son seleccionados para concursar en el programa de televisión "Got Talent", donde viven un espejismo que se desvanece cuando se apagan los focos.*

*"Remember My Name" no es una película de unos menores no acompañados (los llamados "menas"), sino de las personas que hay detrás de esa colectividad.*

*A través de las posibilidades que ofrece el documental, desde una mirada íntima, acercándose con humanidad a los personajes, a sus historias de vida, Elena Molina consigue darles presencia (que no voz, que ya la tienen), mostrar quiénes son, que cada uno de ellos tiene un nombre, que son alguien más allá del lugar común en el que se los clasifica.*

## Solasaldia

Ana Elena Altuna.

Ongi Etorri Errefuxiatuak

## Coloquio

Ana Elena Altuna.

Ongi Etorri Errefuxiatuak

Asteazkena 27 Miércoles

---

# Pure unknown

---

Italia, Suedia, Suiza. 2023. 93 min.

**Jatorrizko izenburua/Título original:** Sconosciuti Puri

**Zuzendariak/Directores:** Valentina Cicogna, Mattia Colombo

**Gidoia/Guion:** Valentina Cicogna, Mattia Colombo

**Muntaia/Montaje:** Valentina Cicogna

**Argazkia/Fotografía:** Jacopo Loiodice

**Musika/Música:** Zeno Gabaglio

---

**Estreinaldia / Estreno**

Gauero izenik gabeko gorpuak heltzen dira Cristina Cattaneo doktorearen autopsia-gelara. Berak “Erabateko Ezezagunak” deitzen die.

“Erabateko Ezezagun” horiek gizartearen bazterrekoak izan ohi dira. Behartsuak, sexual-gangileak, ihes egindako nerabeak dira. Azkenaldian, emigranteak dira gehienak, Mediterraneo itsasoak Italiako kostara bidaliak.

Eskubide guztiak bizenak badira, ez da ezer gelditzen hildakoentzat. Orduan, zer gertatzen da hildakoek beren nortasuna galdu dutenean?

Handitzen ari den olde horren aurrean, ez dirudi inor arduratzen denik haien duintasun-eskubideaz. Inor ez, Cristina salbu.

“Sentiberatasunez zaintzen ditu doktoreak ‘bere’ gorpuak, eta horrek gizarteak era guztieta kanbera nahi izan dien duintasuna ematen die ‘erabateko ezezagun’ horiei.”

(Giorgia Del Don: Cineuropa)



*Todas las noches llegan cadáveres sin nombre a la sala de autopsias de la Dra. Cristina Cattaneo. Ella los llama los “Puros Desconocidos”.*

*Estos “Puros Desconocidos” suelen pertenecer a los márgenes de la sociedad. Son indigentes, trabajadoras del sexo, adolescentes fugados. Últimamente, la mayoría son emigrantes, rechazados por el mar Mediterráneo a las costas de Italia.*

*Si todos los derechos pertenecen a los vivos, nada queda para los muertos. Entonces, ¿qué ocurre cuando los muertos han perdido su identidad?*

*Ante esta multitud creciente, nadie parece preocuparse por su derecho a la dignidad. Nadie excepto Cristina.*

*“La sensibilidad con la que la doctora cuida de ‘sus’ cuerpos confiere a estos ‘puros desconocidos’ una dignidad de la que la sociedad ha intentado privarles en todos los sentidos.”*

(Giorgia Del Don: Cineuropa)

---

## Solasaldia

**Dr. Francisco Etxeberria Gabilondo.**

*Euskal Herriko Unibertsitateko Auzitegiko Medikuntzako irakasle titularra.*

---

## Coloquio

**Dr. Francisco Etxeberria Gabilondo.**

*Profesor Titular de Medicina Forense de la Universidad del País Vasco.*



Osteguna 28 Jueves

# Black Box diaries

Japon, AEB, EB. 2024. 102 min.

**Zuzendaria/Directora:** Shiori Itō

**Gidoia/Guion:** Shiori Itō

**Ekoizlea/Productor:** Hanna Aqvilin

**Muntaia/Montaje:** Ema Ryan Yamazaki

**Argazkia/Fotografía:** Hanna Aqvilin, Yuta Okamura

**Musika/Música:** Mark De Gli Antoni

**Estreinaldia** / Estreno

Shiori Itō praktiketako kazetaria zen kazetari politiko boteretsu batek drogatuta eta bortxatu zuenean. Mespretxatu egin zuten poliziak eta sistema judicial arkaiko batek, eta bere ikerketa propioa abiaraztea erabaki zuen. Film hau bere eguneroko arrakastatsuan eta justiziaren aldeko bere borroka akigarria kontatzen duen bideo-egunerokoan oinarritzen da. Japoniako sistema judicial eta sozial zaharkitua jarri zituen agerian kasu emblematico hark.

“Japonia garaikideko botere-egitura patriarkalen analisi kondenatzailea ez ezik, bizirik dirauenaren moduan bizitzeak eragiten dituen eguneroko gorabehera eta haustura psikologikoen oroitzapen bizia ere bada”.

(Guy Lodge: Variety)

“Mundu erasokorraren aurrean Shiori Itōk duen jardute-gaitasun ohiz kanpoko eta nekazaren testamentu hunkigarria”.

(Jacob Oller: Paste Magazine)

*Shiori Itō era una periodista en prácticas cuando fue drogada y violada por un poderoso periodista político. Ninguneada por la policía y por un sistema judicial arcaico, decide emprender su propia investigación. Este filme se basa en su diario, que ha sido un éxito de ventas, y en el diario en vídeo que narra su agotadora batalla por la justicia, dando lugar a un caso emblemático que deja al descubierto los anticuados sistemas judicial y social de Japón.*

*“No es sólo un análisis condenatorio de las estructuras de poder patriarcales en el Japón contemporáneo, sino una vívida evocación de los vaivenes y rupturas psicológicas cotidianas que conlleva vivir como una superviviente”.*

(Guy Lodge: Variety)

*“Un emocionante testamento de la excepcional y tenaz capacidad de acción de Shiori Itō frente a un mundo hostil”.*

(Jacob Oller: Paste Magazine)

## Solasaldia

**Óscar Seco Revilla**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendari nagusia

## Coloquio

**Óscar Seco Revilla**

Director general de Inclusión Social de la Diputación de Bizkaia



Ostirala 29 Viernes

# Matar a un rruiseñor

**AEB. 1962. 129 min.**

**Jatorrizko izenburua/Título original:** To Kill a Mockingbird

**Zuzendaria/Director:** Robert Mulligan

**Gidoia/Guion:** Horton Foote

**ekoizlea/Productor:** Alan J. Pakula

**Muntaia/Montaje:** Aaron Stell

**Argazia/Fotografía:** Russell Harlan

**Musika/Música:** Elmer Bernstein

**Aktoreak/Reparto:** Gregory Peck, Mary Badham, Phillip Alford, John Megna, Ruth White, Paul Fix, Brock Peters, Frank Overton, Rosemary Murphy.



## Zinexit Classic

“Argitasun-egoeran filmatu dela dirudien maisulana; ñabarduraz beteriko filma, mezua eta, sentikorkeriarik gabe, aparteko sentikortasuna duena. Gidoi bikaina Harper Leeren eleberri bakarrean (Pulitzer Saria) oinarritzen da. Hain zuzen ere, idazleak ez zuen inoiz gehiago ezer argitaratu. Zinemarako egindako egokitzapena arrazakeriaren kontrako aldarriari eta haurtzaroko ikuspegiari atxiki zitzaion samurtasun berdingabez. Halaber, bizitza eredugarri baten paradigma ezartzen zuen Gregory Pecken interpretazio neurritsu eta bikainak, bere ibilbide osoko onenak. Ahaztezina.”

(Pablo Kurt: FilmAffinity)

“Robert Mulliganek eleberriaren espiritua eta berdintasunari buruzko eta arraza-segregazioaren aurkako mezua antzeman zituen, baita istorioaren tempo eta Alabamako 30. hamarkadako uda hartako bero-giroa ere. Bestalde, protagonistak gidatzen asmatu zuen ikuslearen begikotasuna eskuratzen duten antzeppen ahaztezin eta hunkigarrietara.

“Matar a un rruiseñor” filmak 25. postua du film estatubatuar onenen zerrendan, American Film Instituterean arabera, 2007an. Eta 1995az geroztik, «kultural, historiko eta estetikoki adierazgarritzat» jotzen du Estatu Batuetako Kongresuko Liburutegiak.”

(WMagazin.com)

“Una obra maestra que parece haber sido rodada en estado de gracia; una película llena de matices, con mensaje y exquisita sensibilidad sin caer en la sensiblería. El magnífico guion está basado en la única novela -Premio Pulitzer- de Harper Lee, una escritora que curiosamente nunca volvió a publicar. Su adaptación al cine abrazó el alegato contra el racismo y su visión de la infancia con una delicadeza sin igual, al tiempo que sentenciaba el paradigma de lo que es una vida ejemplar en la contenida y maravillosa interpretación de Gregory Peck, la mejor de toda su carrera. Inolvidable.”

(Pablo Kurt: FilmAffinity)

“Robert Mulligan captó el espíritu y el mensaje de la novela sobre la igualdad y contra la segregación racial, el tempo de la historia, la atmósfera calurosa de aquel verano de los años treinta en Alabama y supo guiar a sus protagonistas en unas actuaciones inolvidables y conmovedoras que logran la simpatía del espectador.

“Matar a un rruiseñor” ocupa el puesto 25 en la lista de mejores películas estadounidenses según el American Film Institute, en 2007. Y desde 1995 es considerada «cultural, histórica y estéticamente significativa» por la Biblioteca del Congreso de Estados Unidos.”

(WMagazin.com)

# Zinexit

## Eskola

Beste urte batez luzatzen diegu ZINEXITen ekitaldi berri bat LHko ikasleei Giza Eskubideak irakaskuntzan jorra ditzaten.

14. edizio honetan, IZURDE MUTIKOA animazioko filma aukeratu dugu.

Helburua: ikasleei haurren oinarriko eskubideak eta pertsona guztiek bizitza duina izateko beharrezkoak diren oinarriko premiak azaltzea.

ZINEXIT ESKOLAren edizio honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, eskerrik asko parte hartzeagatik!

Ekitaldi honetarako bereziki egindako materiala prestatu dugu.

*Un curso más, ZINEXIT se extiende a los y las escolares de EPO para trabajar los Derechos Humanos en la enseñanza.*

*En esta 14ª edición hemos elegido el largometraje de animación IZURDE MUTIKOA.*

*Objetivo: dar a conocer al alumnado los derechos fundamentales de la infancia y las necesidades básicas necesarias para que todas las personas tengan una vida digna.*

*Os invitamos a formar parte de esta nueva edición de ZINEXIT ESKOLA, ¡muchas gracias por vuestra participación!*

*También hemos elaborado un material didáctico específico para esta sesión.*



## Izurde mutikoa

**Danimarka. 2022. 85 min. Fikzioa**

**Jatorrizko izenburua/Título original:** Lille Allan - den menneskelige antenne

**Zuzendaria/Directora:** Amalie Næsby Fick

**Gidoia/Guion:** Amalie Næsby Fick, Thomas Porsager.

**ekoizlea/Producer:** Nordisk Film, Pop Up Production, Wil Film

**Musika/Música:** Andreas Arenholt Bindslev

Izurde batzuek itsasoan galdutako ume bat salbatzen dute, eta familiako beste bat balitz bezala hezten dute. Poz-pozik bizi dira olatu azpian, harik eta munstro zital batek urpeko mundua bereganatzen duen arte. Umetxoa lehorrean erbesteratzen dute, eta bertan bihotz oneko Murvarid kapitainak hartzen du etxean.

*Unos delfines rescatan a un niño que encuentran en el mar y lo crían como a uno más de su familia. Vive una vida sin preocupaciones bajo las olas, hasta que un malvado monstruo toma el poder sobre el mundo submarino. El niño es desterrado a tierra firme, donde el bondadoso capitán Murvarid lo acoge.*

# Bosa!

Bilboko Udaleko Giza Eskubidea, Bizikidetz, Lankidetz eta Immigrazioa Sailak BOSA! programa antolatzen du ZINEXIT astean zehar. Bilboko DBHko ikastetxeetara zuzendutako Aniztasunaren alde eta Diskriminazioaren aurkako ekimen hau IrudiBERRIA Elkartearena da.

Edizio honetako programak FILM LUZE bat eskaintzen du, giza eskubideen garapena lantzeko material didaktiko zehatzarekin batera.

## Remember my name

**Frantzia, Espainia. 2023. 73 min.**

**Zuzendaria/Directora:** Elena Molina

**Gidoia/Guion:** Elena Molinal

**Muntaia/Montaje:** Begoña Ruiz

**Argazkia/Fotografía:** Juan Meseguer

**Soinua/Sonido:** Begoña Ruiz

**Produkzioa/Producción:** Boogaloo Films



*El Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Inmigración del Ayuntamiento de Bilbao organiza durante la semana de ZINEXIT el programa BOSA!, una iniciativa de irudiBERRIA Elkarte por la Diversidad y contra la Discriminación, dirigida a los centros escolares de ESO de Bilbao.*

*En esta edición el programa incluye un LAR-GOMETRAJE y un material didáctico específico para trabajar en el desarrollo de los derechos humanos.*



“Remember My Name” ez da laguntzailerik gabeko adingabeei buruzko filma, kolektibo horren atzean dauden pertsonai buruzkoa baizik.

Dokumentalak zenbait aukera eskaintzen ditu, gertuko begiradaz eta pertsonaiengana eta haien bizitzetara gizatasunez gerturatuz; eta Elena Molinak horiei presentzia ematea (ez ahotsa, ahotsa bai baitute jada) lortzen du: zein diren, haietako bakoitzak izena duela eta partekatzen duten sailkapenaz harago norbait badirela erakustea.

*“Remember My Name” no es una película de unos menores no acompañados (los llamados “menas”), sino de las personas que hay detrás de esa colectividad.*

*A través de las posibilidades que ofrece el documental, desde una mirada íntima, acercándose con humanidad a los personajes, a sus historias de vida, Elena Molina consigue darles presencia (que no voz, que ya la tienen), mostrar quiénes son, que cada uno de ellos tiene un nombre, que son alguien más allá del lugar común en el que se los clasifica.*

---

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA



---

KOORDINATZAILEA / COORDINA



---

KOLABORATZAILEAK / COLABORADORES

**golem**

